

## MUSIKAK EZ BAITU ESKOLAN GERATU BEHAR

### Oiartzungo Herri Musika Eskolan argi dute musikak kalera atera behar duela

Oiartzungo Herri Musika Eskolaren aurre historia 1990. hamarkadaren bukaeran koka dezakegu, orduan Oiartzunen bazegoen Txalaparta Talde bat Herri Musikaren Txokoarekin erlazio estua zuena. Talde honen sortzaileek Irungo Txalaparta Eskolan eman zituzten lehen urratsak eta lan horrekin aurrera jarraitu nahi zutela eta Hernaniko Udal Musika Eskola Publikoko ikasle zen Felipe Ugarterekin harremanetan jarri ziren, honek Oiartzunen klaseak eman zitzaizkien.

1999an Oiartzungo Txalaparta Taldeak eta HM Txokoak txalaparta ikasteko aukera oiartzuar guztiei zabaltzeko asmoz klaseak helduen tailerrean txertatzea erabaki zuten. Ikasturte hartan Altzibarko eskola zaharretan 10 ikasle aritu ziren. 2002-2003 ikasturtean alboka ikastaroa ere antolatu genuen 7 ikaslerekin. Urte hartan txalaparta irakasle berriarekin aritu ginen Iñigo Monrealek Feliperi txanda hartu baitzion. Urte haietan 30 bat ikasle matrikulatu ziren ikasturteko.

Oiartzungo Udalarekin gaia aztertu ondoren, 2004-2005 ikasturtean Herri Musikaren Txokoak eskolaren kudeaketa erabat bere ardurapean hartu zuen. Orduetik hona soinu-tresna berriak ikasteko aukera zabaldu dugu eta orain txistu-danbolina, dultzaina, txaramelak, panderoa, danborra, atabala eta kainabera ikas daitezke.

Azken lau urteetan gurean 70 bat ikasle izan ditugu, gehienak oiartzuarrak baina baita donostiarrak, lezoarrak, errenteriarrak, hendaiarrak, hondarribiarrak, alegiarrak, irundarrak, pasaitarrak...

Guk eskaintzen ditugun soinutresnen klaseak gure inguruan ez dira oso ugariak eta argi dago, bai Oiartzunen eta bai inguruko herrietan ere, behar bat bazegoela. Esan dezakegu beraz, nolabait eskolak behar horri erantzuten diola.

Hasieratik, gure helburuetako bat ikasleak kalean jotzeko aukera izatea zen. 1999ko abenduan, orduko Oiartzungo Txalaparta Taldeko partaideak lehenengo aldiz San Esteban parrokiako kanpandorrera igo ziren ezkilak jotzen ikasteko asmoz eta geroztik zeregin horretan jarraitzen dute. Garai hartan txalaparta kalean entzuteko aukera ere bazegoen: inauteritako intxisuen ongi-etorrian, sagardo egunean, hainbat ezkontzetan eta abar.

eta Altzibarren ere parte hartzen dugu, baita auzo ezberdinetako jaietako kalejiretan. Elizalde Eskolako eta Hautzaro Ikastolako dantzariekin Kontsejupean dantza emanaldietan ere lagundu dugu.

Kalean jotzeko eskaera gero eta handiagoa dela ikusirik eta gure ikasleei elkarrekin jotzeko aukera eman nahiez ikasturte hasieran Dultzaina Taldea sortu genuen eta hurrengoan Alboka Taldea sortzeko asmoa daukagu. Dultzaina taldea kalera lehen aldiz 2009ko abenduaren 13an atera zen. Hotz handia zegoen goiz hartan baina taldeko ikasle denak ibili ziren kalez kale.

Kalebuelta honek ondoren gehiago ekarri ditu. Hilero Elizalde inguruko kaleetan Oiartzungo hainbat musika talde ezberdin ibili dira igande goizak alaitzen eta



Oiartzunen haurrak panderoa jotzen ikasten. HMT

Eskolak soinu-tresna berriak ikasteko aukera eman ahala, ikasle berriek behin maila bat lortuta kalera ateratzeko aukera izan dute: 2005eko inauterietan Ergoiengo kuestazioan panderoa eta Karrikan alboka. Gaur egun dagoeneko inauterietan Gurutze

tartean gure eskolako dultzainero eta albokariak.

Ezin bukatu gure eskolak beste musika eskolekin dituen harremanak aipatu gabe. Nabarmenena Hernaniko Udal Musika Eskola Publikoko Euskal Soinu-tresnen mintegiarekin duguna da. Bertan

(Azken orrian jarraitzen du)

# KONTZERTUAK HM Txokoan

## Udako kontzertua

2010eko uztailaren 3an - 18,30tan - HM Txokoan

### **GORKA ZABALETA eta EIDER ZABALETA**

Gorka Zabaleta izeneko 20 urteko gazte oiartzuarra dugu oraingoan gure artean. Gorkak musika du pintura eta eskulturarekin batera bere sentimenduak kanporatzeko tresna. Horrela, musika arloan egin dituen ekintzak azaldu baino lehen, pinturako lehiaketak irabazi izan dituela esan behar dugu. Bereizgarriena, 2009an Chillidaleku museoan egin zen lehiaketan bere artelanari emandako nortasun saria izango litzateke.

Bilakaera artistikoan etapa desberdinak bizi ditu. 10 urtez Errenteriako Andra Mari abesbatzako partaide izan da. Bere kabuz ordea, orain dela 6 urte hasi zen hitzak eta musikak sortzen eta abeslari honek dagoeneko 50 abesti ditu bere bilduman.

Asmatu dituen abestien itxura eta modalitateaz hitz egiterakoan, country, folk balada irlandarra eta euskal tradizioa oinarri duten euskarazko kantak dira. Gaiak anitzak dira, gaur egungo gaiez aparte beti ere etorkizunarekin eta iraganarekin jolastuz. Oso abesti sentikorrek dira, Gorkak gogoko duen poesia ondo erabiliaz.

Abesti gehienak gitarraren laguntzaz ematen ditu. Hala ere, a capella aritzea oso gogoko du eta horrela abesteko kantak ere egiten ditu. Kontzertu hau bere arreba Eider lagun duela emango du eta sorkuntza propioko abestiekin tartekatuta Oiartzungo herri kantutegitik hartutako kanta zaharrak abestuko ditu.

Dagoeneko kontzertu eta ekitaldi ugari eman

dituela esan daiteke. Horietako batzuk aipatzekotan: Bordeleko Euskal Etxean *Fête de la musique*-en parte hartu zuen, Bartzelonara ere joan zen bertako Euskal Etxean abestera. Hemen gertu berriz, Lezoko Gezala antzokian, Errenteriako Mikelazulo tabernan eta Lekeitioko *Euskal Zine eta Bideo Bileran* aritua da. Azkenekoa pasa den apirilean Hendaiaiko Abbadia gazteluan eginiko kontzertua izan zen.

Bere kabuz bi CD argitaratu ditu.

<http://www.myspace.com/gorkazabaleta>

#### **EGITARUA**

1. Iratze
2. Ederra zara gero
3. Zergatik
4. Lo barik
5. Itsas apar
6. Goiz batean
7. Hor zaude
8. Nork egin du gure galde
9. Arboletan den ederrena da
10. Aizazu, suantxa
11. Lur sustraiak
12. Ilumpean
13. Une bat
14. Euri zaparrada
15. Irria



# LA CHAMINERA

Ángel Vergara eta M<sup>a</sup> José Toche Menal-ek osatutako bikotea da. Hamabost urte baino gehiago daramatzate elkarrekin musika eta antzerki herrikoia-aren inguruan lanean.

Ángel Vergara 1978tik ari da mundu honetan lanean. Soinu-tresna ezberdinak joaz Labordeta, Hato de Foces, La Orquestina del Fabirol edo Los Titiriteros de Binéfar bezalakoekin aritu da. Aragoiko herri musikaren inguruko ikerketa eta zabaltze lan handia egin du tartean idatzizko zein soinu-zko argitalpen ugari eginez.

M<sup>a</sup> José Menal antzerkian ariztetik etorri da mundu honetara. Horretaz gain luterian ere aritua da eta gaur egun hedatze lanarekin jarraitzen du: soinu-tresna herrikoiak eginez, erakusketak antolatuz, irakasle eta maisuentzat ekitaldi didaktikoak emanez...

Herri kulturaren alde musikalean sakontzeak kantatzera eta jotzera eraman ditu; baita kontatzera ere. Soinu-tresnak eta doinuak ezagutzera ematearekin batera jotzaile zaharren atzean dagoen izpiritua eta narratiba azaltzen dituzte.

La Chaminera-k (kebidea, xemeneia, cheminée, chimenea, camino... esan nahi du) emanda doinu zahar eta egunekoak (bizirik dirautelako) en-tzuten dira. Horrekin batera musikaren funtsaz, soinu tresnez edota bere jotzaileez hitz egiten duten entzundako edo amestutako istorioak konta-tzen dituzte.

Beraiek argitaratutako liburu eta diskoen artean *Entre líneas*, *Falordias de Juglares* eta *Bajo Ebro/Baix Ebre* dituzte, azken hau La Criatura Verda kataluniar taldearekin elkarlanean atera zuten. Gainera Aragoiko herri musika biltzen duten hogei



bat diskotan hartu dute parte.

Estatu osoan barrena ibiliak dira La Chaminera-ekin eta mundu erdian zehar beste talde batzuekin.

<http://www.chaminera.com>

## EGITARAUAREN AURRERAPENA

1. Anuncio de fiesta
2. Albadas
3. Bolero de Fraga
4. El piojo y la pulga
5. Lo ball del Poll
6. El gaitero y el lobo
7. Los parientes de Pedrón
8. Tres palitroques
9. Jota de los gaiteros de Caserras
10. San Antón
11. Habanera del Tieso

Udako kontzertua HM Txokoan

## AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Orain arte bezala, afaria antolatu dugu Auzokalte elkartearen musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa: 18 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



### (Lehenengo orriaren jarraipena)

urtetan ikasle izan direnak, orain, bai han eta bai gurean irakasle dira. Hainbat kalejiretan bi eskole-tako ikasleen presentzia ia normala da gaur egun. Ikasle asko bi eskoletan matrikulatuta daude eta bietako talde ezberdinetan parte hartzen dute. Elkarlan honek, gure inguruko herrietan herri musikak duen presentzia asko handitu du. Ezin ahaztu bi eskola hauek Errioxako Alberiteko "Escuela de Gaita y Tanbor" eskolarekin duten harremana. Urtero Brionesera bisitan jotzen dira eta aldi berean haiek gurera etortzen dira negu partean.



Oiartzunen ikasle eta irakasleak kalejiran. HMT



Uharteko Flakutt taldea larunbateko jaialdian. HMT

## TXALAPARTA FESTA HERNANIN

Pasa den maiatzaren 20 eta 22 artean ospatu zen 24. Txalaparta Festa. Txalaparta proiektuaren aurkezpenarekin eman zitzaion egitarauari hasiera. Bertara hurbildutakoek proiektuaren nondik-norakoak ezagutzeko aukera izateaz gain grabazioan parte hartu duten txalapartarien saioa entzuteko aukera izan zuten. Hurrengo egunean Harresian Zulo talde arabarrak Euskal Herriko eta Afrikako erritmo, dantza eta musikak nola uztartzen zituen ikusteko gogoz bete zuten jendeak Biteri.

Egun handia larunbatekoa izan zen. Saio libreetarako jarri ziren txalapartak isildu gabe aritu ziren. Afaltzeko ordua iritsi zenean 130 bat lagun bildu ziren eta bukatzeko, jaialdi nagusia iritsi zenean azken urteetan baino talde gutxiago aritu ziren, baina eskainitako maila altuagoa izan zen.

## IRAILEAN ALBOKARIEN HERNANIKO 17. TOPAKETA

Antolakuntza aldetik egokiago izango delakoan, berritasun edo nobedade garrantzitsu batekin dator aurtengo edizioa. 2000ko 7. ediziotik aurrera, gaur egun arte bi eguneko egitaraua izan duten edizio guztiak larunbata eta igandez ospatu dira. Aurten lehenengo aldiz ostirala eta larunbatez ospatuko da: irailaren 24 eta 25ean.

Irailaren 24ean, ostirala, Biteri Kultur Etxeko Areto Nagusian arratsaldeko 7:30etan Gasteizko Musika Etxeko Albokariaren kontzertua izango da.

Hurrengo egunean, larunbata, Hernani Musika Eskola Publikoan goizeko 10:30etan "Alboka laguntzeko panderoa eta kantua" izenburutzat duen tailerra izango da. 12:00etan Albokariaren kale bueltak hasiko dira. Pentsatzekoa da kaleak alaitzen nekatu eta gosetuko direla eta 14:30etan Herri bazkaria izango da indarra eta animoa berreskuratzeko. 19:00etan Ezkiaga pasealekuan Alboka Jaialdia.

## BISITATIK BISITARA

Urtearen erdia konturatu orduko pasa da eta gure artean hain ugariak izaten diren haurrak oporretara joanak dira. Haurrak esan al dut? Bai. Gurean liburu, soinu-tresna eta disko zahar asko badago ere, haien berri izan nahian etortzen direnen proportziorik handiena gizon eta emakume berriek osatzen dute: haurrek.

Azken urteetako datuek bisitarien kopurua egonkortzen ari zela pentsarazten bazuten ere aurtengoak harrigarria ari da suertatzen. Gurean ere *krisia* eman dela esan beharko dugu, baina oraingoz onerako dela azpimarratu behar. Aurreko urteetan urte osoan 3500 bisitarien bueltan ibiltzea izan bada, aurten urte erdian 3300 pertsonatik gora izan ditugu gure egoitza ikusten.

Lehen aipatu dugun bezala, horietako gehienak haurrak dira. Horien artean ere aldaketak sumatzen dira. Jatorri atzeritarreko haurrak ugaritu dira eta askotan txundituta geratzen dira bertako soinu-tresna batzuk lehen aldiz hemen ezagutzen dituztelako.

### BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabetetan: bisitari kopurua: 1.633

Antolatutako taldeak: 49

Bisitari kopurua uztailerarte: 27.126

### WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabetetan: 13.040

## HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

[www.herrimusika.org](http://www.herrimusika.org)

